

Datak:

Izena aurretik emateko epea:
2018ko apirilatik aurrera

Ikasturte akademikoaren hasiera:
2018ko irailean


European Master in Multilingualism and Education (EMME)

Euskal Herriko Unibertsitatea(UPV/EHU)


HEFA 70 Tolosa Hiribidea
20018 Donostia-San Sebastián

Tlno: (+34) 943018248

E-maila: elixabete.echeverria@ehu.eus



Gipuzkoako Campusa




Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez gurekin harremanetan jar zaitez:

Elizabet Arocena (mirenelizabet.arocena@ehu.eus)
Jasone Cenoz (jasone.cenoz@ehu.eus)
Alaitz Santos (alaitz.santos@ehu.eus)

www.ehu.eus/eu/web/mastermultilinguaeducation



Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



Eleaniztasunari eta Hezkuntzari buruzko Master Europarra - European Master in Multilingualism and Education

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

Tlno: (+34) 943018248

www.ehu.eus/eu/web/mastermultilinguaeducation



Eleaniztasunari eta Hezkuntzari buruzko Master Europarra (EMME)

Eleaniztasunari eta hezkuntzari buruzko master honek eleaniztasunaren arloan aditu eta ikertzaile bihurtzeko aukera emango dizu. Paregabeko master honi esker, hizkuntzen ikaskuntzan, hizkuntza-plangintzan eta hezkuntzaren baitako hizkuntza-erabileran duzun interesa garatu ahal izango duzu. Era berean, doktoregoa egin ahal izateko prestakuntza eskainiko dizu.

EMMEren helburua da irakaskuntzan eta ikerketan bikaintasuna eta goi-mailako kalitatea sustatzea, ikasle zein irakasleen inspirazioa elikatzeke. Pentsamendu kritikoa eta trebetasun analitikoak akuilatuko dira, eleaniztasunaren eta hezkuntzaren ikerkuntzan funtsezkoak diren kontzeptuak eta erronkak jorratzen dituen programa baten bidez.

Gure ikasle gisa lortuko duzu:

- Eleaniztasunaren eta hezkuntzaren arloan goi-mailako espezialista bihurtzea
- Irakaskuntza eleaniztasunaren alderdi psikolinguistiko, soziolinguistiko eta hezkuntzakoak sakon ulertzea
- Arazoak konpontzeko gaitasuna garatzea
- Jarrera analitiko eta kritikoa elikatzea
- Berrikuntza-prozesuak abian jartzeko gai izatea
- Hezkuntza eleaniztasuneko sistemak taxutzeko gaitasuna eskuratzea
- Ikertzaile aditu eta jakituna bihurtzea

Ikastaro aurreratuak (45 ECTS) eta master amaierako lana (15 ECTS) barne hartzen ditu programak. Ikasleak animatuko ditugu masterra amaitzean doktoregoarekin jarrai dezaten. Master Europar hau Groningeneko Unibertsitatearekin (Herbehereak) elkarlanean antolatu da.

Masterraren ikuspegia eleaniztasuna da. Nahitaezko bi ikasgaiak ingelesez emango dira; hautazko ikasgai batzuk ere ingelesez emango dira, eta beste batzuk euskaraz edo gaztelaniaz. Ikasleek hiru hizkuntza horietako edozeinetan hitz egin dezakete edo lanak aurkez ditzakete.



EMME masterraren batzorde akademikoa
Elizabet Arocena, Jasone Cenoz eta Alaitz Santos

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EMME ikasteko zazpi arrazoi sendo

1. UPV/EHUn esperientzia akademiko bikaina biziko duzu. Askotariko teoriak eta metodoak irakatsiko dizkizugu. Hezkuntza eleaniztasunaren inguruko ezagutza sakona lortuko duzu, eta, horri esker, praktikarako behar dituzun baliabideak eskuratuko dituzu. Proiektu berritzaileetan parte hartu ahal izango duzu, edo ikastetxeetan irakaskuntza eta ikaskuntza eleaniztasunarekin lotutako arazoak konpontzeko aukera izango duzu.

2. EMMEren helburu garrantzitsu bat da ikasleei ikasgelako ikaskuntza eta beren esperientzia profesionala uztartzeko aukerak ematea. Alde horretatik, bigarren ikasturtean masterrak praktiken programa bat du, hezkuntza-testuinguru batean garatuko dena.

3. Masterraren Amaierako Lana egitean, EMMEk atzerrian egonaldiak egiteko aukerak eskaintzen ditu, hezkuntza eleaniztasuneko beste proiektu batzuk ezagutu ahal ditzazun.

4. Antolatzen dugun “Donostia Lectures on Multilingualism and Education” hitzaldi-sortan hezkuntza eleaniztasunaren arloan sona handia duten ikertzaileei entzuteko eta haiekin esperientziak partekatzeko aukera izango duzu.

5. EMMEk zure ingelesa suspertzeko aukera ematen dizu. Ikasgai batzuetan, irakas-hizkuntzak eta materialak ingelesez egongo dira; edonola ere, ikasleek beren aurkezpenetan ingelesa, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko aukera izango dute.

6. EMMEk zenbait kreditu baliozkotzeko aukera ematen dizu, zure esperientzia profesionalaren edo egin dituzun ikasketen arabera.

7. EMMEk zenbait eskola eta ikasgai zuzenean online egiteko aukera ematen dizu.

EMME ikastea, bizi-esperientzia zoragarria!